

Berrigara

BERGARA • ELGETA • ANTZUOLA / Egubakoitza / 2004ko abenduaren 17a / 609. zenbakia

HORRA, HORRA GURE OLENTZERO!

Olentzero Marrazki Lehiaketako marrazki irabazlea.
Egilea: Miren Gonzalez Barrutia, 7 urte.



LANBIDE HEZIKETA: 75 URTE BERGARAN/4 • KULTURA: GABONETAKO KONTZERTUA ZAPATUAN/6

AZALA: MAITENA ARANA / JATORRIZKO ARGAZKIA: MIREN GONZALEZ BARRUTIA

GUARDIAKOFARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 17
CAMACHO, Oxirondo 4 943 76 11 74
- ZAPATUA, 18
ZABALA, Barrenkalea 25 943 76 16 87
- DOMEKA, 19
ZABALA, Barrenkalea 25 943 76 16 87
- ASTELEHENA, 20
GUALLAR, San Antonio 5 943 76 11 05
- MARTITZENA, 21
ESTELLA, Matxiategi 5 943 76 19 63
- EGUAZTENA, 22
MOZOS, Iparragirre 2 943 76 12 15
- EGUENA, 23
CAMACHO, Oxirondo 4 943 76 11 74

TELEFONO JAKINGARRIAK

- OSASUNA / LARRIALDIK**
- Anbulatorioa (txanda) 943 03 54 00
- Bergarako Udaltzaingoa 943 77 91 06
- Antzuolako Udaltzaingoa 943 76 62 46
- Ertzaingoa 943 53 47 20
- Osasun etxea 943 76 24 40
- Asepeyo 943 76 16 43
- Pakea 943 76 13 49
- Angiozarko medikua 943 78 90 27
- Antzuolako medikua 943 76 62 23
- Odol emaleak 943 76 16 24
- Alkoholiko Anonimoak 943 76 51 06
- GARRAIOAK**
- Taxiak 943 76 19 50
- UDALA**
- Bergarako Udaletxea 943 77 91 00
- Antzuolako Udaletxea 943 76 62 46
- Udal Artxiboa 943 77 91 32
- Igerilekuak 943 76 20 51
- Kultura etxea 943 77 91 58
- Liburutegia 943 77 91 62
- Kiroldegia 943 76 56 41
- Mizpirualde egoitza 943 76 13 68
- BESTELAKOAK**
- Epategia 943 76 14 92
- Erregistroa 943 76 13 15
- Jardun 943 76 36 61
- Idolaz 943 76 65 08
- Erretiratuen etxea, Bergara 943 76 21 40
- Antzuolako erretiratuen elk. 943 76 62 71
- Postetxea 943 76 26 85
- Bedelkar 943 76 04 68
- Akulu AEK 943 76 05 18
- Udal Euskaltegia 943 76 44 53
- Bergarako notariotza 943 76 10 73

MEZAK

- San Pedro**
Domekak: 09:30.
Zapatuak eta lanegunak: 19:00.
- Santa Marina**
Zapatuak: 19:00.
Domekak: 13:00.
- Sierbak**
Lanegunak: 19:30
- Osintxu**
Domekak: 12:00.
- Elosu**
Domekak: 11:00.
- Ubera**
Domekak: 10:30.
- San Juan**
Domekak: 11:00.
- Elorregi**
Domekak: 10:30.
- Labegarieta**
Domekak: 11:00.
- San Lorenzo**
Zapatuak: 20:00.
- Angiozar**
Domekak: 11:00.
- Moja Zaharrak**
Lanegunak: 08:00.
- Mizpirualde**
Lanegunak: 11:45.
- Zapatuak: 17:30.**
- Antzuola**
Domekak: 10:00, 11:30.
- Zapatuak eta lanegunak: 19:30.**
- Uzarraga**
Domekak: 10:00.
- Elgeta**
Lanegunak: 09:00.
Zapatuak: 19:30.
- Domekak: 12:00.**
- URTE-MEZAK**
- Santa Marina**
Hileko bigarren domekan, 13:00etan.
- San Pedro**
Hileko hirugarren domekan, 09:30ean.

OHARRAK

ESKI IRTEERA
Pol-Pol Mendizale Taldeak urtarrilaren 14tik 16ra bitartean Baqueirara eskiatzera joateko irteera antolatu du. Izenematea Pol-Polen, aste barruan 19:00etatik 20:30era. Argibideak: 943 76 48 51.

AMODIOZKO GUTUNAK
XIII. Amodiozko Gutunen Berrigara lehiaketa deitu du Jardun euskara elkarteak. Lanak Jardunen bulegora, Errotalde jauregi-
ra, edo kulturajardun@topagunea.com helbide elektronikora bidali behar dira, urtarrilaren 7a baino lehen. Irabazleak 450 euro jasoko ditu eta 26 urtetik beherako onenarendako 100 euroko saria izango da. Argibideak Jardunen, 943 76 08 19 zerbakian.

JARDUNENAGENDA

BILBORA IRTEERA
Jardunek 12- 16 urte bitarteko gaztetxoentzat abenduaren 18an Bilboko Gabonetako jolasparcera joateko irteera antolatu du. Argibideak: 943 76 08 19.

URBANOENORDUTEGIA

San Lorenzo / San Juandik irteerak
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.
GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorenzo (Soraluze aurrean), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegarieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.
Labegarieta / Olabarrenetik irteerak
07:20, 07:35 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.
GERALEKUAK: Labegarieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoloia (Mintegi), San Pedro, Arrurriaga (Konde), Zubijeta, Mugertza, San Lorenzo, Amillaga eta San Juan.

ORAINDELA 10 URTE BERGARAN

Labegaraietan industrialdea suspertzeko hitzarmena

Zerrajera eta Arregiren Tejeriako lursailetan industrialdea suspertzeko hitzarmena sinatu zuten 1994ko abenduaren 20an. Udalak, Zerrajerak, Kutxak eta Lucio Arregik lortutako akordioaren arabera, Labegaraietan baztertuta ziren pabilioietan, 100.000 m²-ko azalera, industrialdea kokatzea zen asmoa.



BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru

“Goratu”



Laudatu.
—Periodikuak Arkonada zeruraino goratu dau.

JON IRAEGI

HAUGIROA!

MINIMOA	1°C
Domeka, 12	
MAXIMOA	16°C
Astelehena, 13	
ASTEKO EURIA (l/m ²)	0,3 L

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 8	8 °C	5 °C	0,3 l/m ²
Eguena, 9	11 °C	7 °C	- l/m ²
Egubakoitza, 10	12 °C	3 °C	- l/m ²
Zapatua, 11	12 °C	4 °C	- l/m ²
Domeka, 12	14 °C	1 °C	- l/m ²
Astelehena, 13	16 °C	3 °C	- l/m ²
Martitzena, 14	15 °C	1 °C	- l/m ²

San Juan auzoan jasotako datuak

ASTEKOPELIKULAK

‘EL LOBO’

ZUZENDARIA: MIGUEL COURTOIS. AKTOREAK: EDUARDO NORIEGA, JOSE CORONADO.

HARIA. Mikel Lejartza *El Lobo* Espainiako zerbitzu sekretueta-ko kidea ETAn infiltratuko da. Erakundean gora egingo du pixkanaka, eta goi karguetara iritsi.

TOKIA ETA ORDUA. Egubakoitzean, 22:30ean; zapatuan, 17:00etan, 19:30ean eta 22:30ean; domekan, 17:00etan, 19:30ean eta 22:15ean; astelehenean, 19:30ean (ik. eguna).

PUNTUAZIOA: ●●●●●



‘LUNA DE AVELLANEDA’

ZUZENDARIA: JUAN JOSE CAMPANELLA. AKTOREAK: RICARDO DARIN, EDUARDO BLANCO.

HARIA. Luna de Avellaneda auzoko kirol talde txiki bat da, baina futbola uztekoan daude. Beraien lekua kasino batek bete-ko duela dirudi, baina batzuek taldearen alde borrokatu nahi dute.

TOKIA ETA ORDUA. Eguenean, abenduaren 23an, 20:00etan.

PUNTUAZIOA: ●●●●●

BERGARA MARMOLERIA
PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimarak

Urarte 8 BERGARA
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47
Faxa: 943 76 04 77

BERGARA Margoak

Kalitatea eta zerbitzua.

Amillaga 1, 1 pabilioia, goiko solairua. 162 posta kutxa, 20570 BERGARA
Tel.: 943 76 97 31 Faxa: 943 76 97 32. bergara.margoak@terra.es

SANTOS

TIEN 21

Etxetresna elektrikoak eta argiztapena

Masterreka 2. BERGARA
Tel.: 943 76 26 10

ATREBENTZIA EZ PADA/ Zein opari eskatu dizkiozu aurten Olentzerori?



MIRIAN MUÑOZ
4 urte

ASIER MUÑOZ
5 urte

SARA BERISTAIN
5 urte

IRATI POLANCO
5 urte

MIKEL LARRAÑAGA
5 urte

ANDREA GONZALEZ
5 urte

Barbie panpinaren karrotxoa eskatu diot, eta ekarriko didala uste dut, urterotxo ekartzen didatelako zer-bait. Eskutitza idatzi diot, eta Olentzero plazara etortzen denean eramango diot.

Action Man gorila, autoak eta pista bat dituen armarma eta Peter Pan-en uhar-tea eskatu dizkiot. Eskutitza bidaliko diot, eta opari guztiak ekarriko dizkit, ongi portatu naizelako.

Motordun panpina eskatu diot, eta, ongi portatu naizenez, ekarriko dit, seguru aski. Eskutitza idatzi dut, eta Olentzerori berari emango diot plazara etortzen denean.

Panpinak eskatu dizkiot. Bat motorduna, bestea aurpegia margotzen zaiona eta hirugarren bat ere bai. Eskutitzean esan diot ongi portatu naizela, eta ekarriko dizkit opari guztiak.

Mendiko bizikleta bat, Game Boy Advance SP jokoak eta baloia eskatu dizkiot Olentzerori. Berak denak ekartzen ez badizkit, opariren bat erregeek ekarriko didate.

Izeba baten etxean margo-tzeko aurpegi bat, maitagarrien jolasa eta Baby Born-en sendagileen poltsa ekartzeko eskatu diot. Denak ekarriko dizkidala uste dut.

TXALOAK ETATXISTUAK



TXISTUAK TXAKUR JABEEI Irakurle batek deitu digu esanez, herrian ezinbat txokotan txakur kakak egoten direla. "Jabeena da errua. Txakurrak euren eginbeharrak egitera kalera ateratzea ongi dago, baina jabeek kaka jasotzeko ardura hartu behar dute. Bestela, paseatzen gogozela kaka zapaltzeko arriskua dugu. Txakurrendako sarrera debekatua dagoen tokietara ere eramaten dituzte batzuek", esan digu. //A.

ETABARRUAN...

ASTEKO /4	ASTEKO BERRIAK /6	KIROLAK /9
Aralarren ikuspuntua	Gabonetako kontzertua	Muguruza-Gutierrez
Udalbatzan Bergara Aurrerari lekua egiteko orduan, EAJ-EA-ren jarrera salatu du Aralarrek.	Zapatu gaueko kontzertuarekin Gabonetako ospakizunak hasiko dira herrian.	Gipuzkoako pilota txapelketan, hirugarren postua eskuratzeko partidua izango dute zapatuan.

ASTEKO DATUA

631

LAN OLENTZEROREN MARRAZKI LEHIAKETAN

Jardun elkarteak Olentzeroren irudia umeen artean zabaltzeko asmoz, Olentzeroren marrazki lehiaketa antolatu zuen. Guztira, 631 lan aurkeztu dituzte 6 eta 12 urte bitarteko umeek.

IRAKURLEAK MINTZO

SEMINARIOAN AUTORIK EZ

Aranzadi ikastolako 6. mailako ikasleak gara. Aste barruan ordu erdiko jolas ordua daukagu baina egun batzuetan kotxez beterik egoten da gure jolastokia, orduan ezin dugu jolas egin. Baina ez bakarrik jolas orduetan, beste edozein orduetan ere bai. Adibidez, aste buketan Seminarioko patioa kotxez beteta egoten da batzuetan, eta ezin dugu jolastu, arriskutsua ere izan daiteke, ume txikiak egoten baitira. Batzuetan ematen du jendeak Seminarioko patioa parking bat dela pentsatzen duela.

Asko eskertuko genuke gidari-erik eskutitz hau irakurtzea eta guk eskatutakoa egitea.

Mila esker, eta gazteak izan arren, ea kontutan hartzen gaituzuen.

ARANZADI IKASTOLAKO
6. MAILAKO IKASLEAK

BERAIEKDIÑO/ Andres Osa Sakona



Urte zaharrari, agur

Urte zaharrari agur esango diogu, aurki. Balantzea egiterakoan urtean zehar izan ditugun mila gertakari kontutan hartzeko modukoak dira baina, guztien zerrenda eta aipamena egin beharko bagenu erotuta ez ezik hil zoriar ginakeke.

PPk hartu zuen ukabilkadak lurrean danba etzanda laga zuen zorionez. P(so)Eren "garaipena" badakigu zergatik izan zen. Itxura, aldartea aldatu duela baina orain artekoa irribarre eta faltsukeria hutsean gelditu da.

Batasunak, legez kanpo jarri duten alderdi abertzaleak, hauteskundeetan izan duen garaipenak eta ondoren Anoetako agerpenak Euskal Herria bizirik, tinko eta itxaropentsu dirauela frogatzen du. Legez kanpo utzitako Ezker Abertzalearen merituz mantentzen da, hein handi batean, herri mina eta bizi poza. Anoetako ekin-tzak lurrikara eragin du eta izua sortu zenbait alderditan

horren aitormenik ez badute egiten ere.

Alde ilunak eta mingarriak presoan egoera, dispertsioaren odolustea, heriotzak eta nahigabea. Konta ezinezko atxiloketak, inkomunikazioak, torturak eta zer ez! Honen guztiaren aurrean alderdien zurikeria eta hitz jario antzua. Goian esan dugu zerrenda luzea litzatekeela, ezin ahan-tzi genero bortizkeria.

Urte Berriak ekar dezake, ekarri behar luke eta, uste dugu ekarriko duela gertakizun onik Euskal

Herriak bizi duen egoerari irtenbidea aurkitzeko. Ezinbesteko baldintzak legez kanpoko egoerari amaiera eman, inkomunikazioa deuseztatu eta dispertsio politika behin betirako ezabatzea da besteak beste. Egoera hori, hemen bertako alderdiek gogoko dute, besterik plazaratzen badute ere. Txorlitoen hitz jariora, giza eskubideen defentsa eginaz, duten ezina estaltzeko aitzakia da soil soilik.

"Balantzea egiterakoan urtean izan ditugun mila gertakari kontutan hartzekoak dira"

Berrigara
Irizar Jauregia • Barrenkalea 33
20570 BERGARA
Tel.: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA
Edu Mendibil
ERREDAKZIOA
Aintzane Irizar
Irati Agirreazaldagi
MAKETAZIOA
Maitena Arana

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga
KOLABORATZAILEAK
Luis Mari Agirre
Juan Martin Elempuru
Miguel Angel
Elkorobereibar

LEGE-GORDAILUA
SS-50/91
ISSN
1130-6599
TIRADA
5.900 ale

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:

Eusko Jaurlaritzako Kultura saila
Gipuzkoako Foru Aldundia
Bergarako Udala
Antzuolako Udala
Elgetako Udala

HEZKUNTZA/ Bergaran Lanbide Heziketa hasi zeneko 75. urteurrena ospatzeko liburua eta DVDa kaleratu ditu Miguel Altuna ikastetxeak

Lanbide Heziketa: 75. urteurreneko ekitaldiak Elementaletik igarotako jendea batu zuen

EDU MENDIBIL

Udaletxeko osoko bilkuren aretoa jendez gainezka zegoela, *Bergarako Elementala: 75 urteko ibilbidea* liburua aurkeztu zuten eguaztenean. Lanbide Heziketaren garrantzia azpimarratu zuten bildutakoek.

Ikasle eta irakasle ohiak, enpresaburuak, ikastetxeko zuzendari izandakoak eta beste hainbat herritar izan ziren ekitaldian. Juan Luis Bikuñak egin zuen aurkezle lana; Jorge Arevalo Lanbide Heziketako eta Etengabeko Ikaskuntzako sailburuordeak, Iñaki Muxika Jaurlaritzako Lanbide Heziketako zuzendariak, Victoriano Gallastegi alkateak, Iñaki Larrañaga Miguel Altunako zuzendariak eta Gorka Etxabe liburuaren egileak hartu zuten hitza. Guztiak bat etorri ziren Lanbide Heziketaren garrantzia azpimarratzeko orduan.

Arevalok zera adierazi zuen: "1996an, batetik, kalitatearen aldeko apustua egin genuen, eta, bestetik, Lanbide Heziketa bazarrik eskaintzen zuten ikastetxeren alde egitea ezinbestekoa zen. Orduetik hona egindako lanaren ondorioz, Miguel Altuna EAEko lau ikastetxe onenen artean dago



Jorge Arevalo, Victoriano Gallastegi, Iñaki Muxika eta Iñaki Larrañaga.

egun. Enpresen alboan jarraitzeko, berrikuntza eta teknologia berriak ezinbestekoak dira. Zentzu horretan, etorkizunean egingo den ikastetxe berriak bultzada emango dio Miguel Altunari".

Lehen garaiko lau ikasle (Vicente Migura, Jose Ignacio San Jose, Martin Zabaleta eta Marcos Kortabarria), zuzendari ohiak, 75 urteotan ikastetxetik igarotako hainbat irakasle, langile eta ikasle (tartean lehen

emakumea, Lorea Arregi), Miguel Altuna zenaren tarteak edota zenbait enpresabururi liburua eman zieten eguaztenean. Ondoren, Miguel Altuna ikastetxera bisita egin zuten, egin den DVDa ikusi eta gaur egun ikastetxean egiten den lana gertutik ezagutzeko.

Ikasle talde batek protesta egin zuen ekitaldian, eta euskarazko Lanbide Heziketa aldarrikatu.



Ikastetxetik igarotako hainbat lagunek liburua jaso zuten eguazteneko ekitaldian.



Osoko bilkuren aretoa jendez gainezka egon zen eguaztenean.

Bari udalbatzan tokia egiteko orduan EAJ-EAren jarrera salatu du Aralarrek

E.M.

Iñigo Iñurrategi, Martin Etxeberria eta Mikel Etxaniz Aralarko zinegotziek prentsaurrekoa eskaini zuten martitzenean, kultura etxean. Udalbatzan Bergara Aurrera plataformari lekua egiteko orduan, EAJ-EA koalizioaren jarrera salatu zuten. Iñigo Iñurrategik adierazi zuenez, EAJ-

EAK ez du erakutsi borondaterik egoera horri buelta emateko: "Alkateak berak hitza eman zuen duela hilabete inguru BAKo ordezkarietara deituko zela, batzordeetan euren parte-hartzea bermatzeko. Ez du hitza bete, eta tentsioa areagotzen doa. Hain zuzen, azken aurreko osoko bilkura bertan behera geratu zen. Badirudi egoera dagoenetan mantentzea inte-

resatzen zaiela EAJ-EAkoen".


Aralarrek gogoratu zuenez, beraiek hiru proposamen egin dituzte arazoa bideratzeko udal hauteskundeak izan zirenetik. Urrian egin zuten azkena, BAKo ordezkariak udal organoetan parte hartu eta erabakitzeko gaitasuna izan dezaten eskatuz. Hala ere, egoera blokeatuta dagoela esan zuten Aralarkoek.



Argazkian, Aralar alderdiko zinegotziak martitzeneko prentsaurrekoan.



kiñu
Gabon zoriontsuak!
argazkilaria



299€

C-470 ZOOM

Bideo grabazioa soinuarekin.
Iraupen luzeeko ioi-litiozko bateria.

POLITIKA/ Euskadi Buru Batzarrak bilera egin zuen astelehenean Bergaran

Batzokiaren mendeurrenean lehendakariaren bisita

E.M.
Bergarako Batzokiaren sorreraren 100. urteurrena betetzen dela eta, Juan Jose Ibarretxe lehendakaria izan zen astelehenean jeltzaleen egoitzan bazkaltzen. Euskadiko Buru Batzarrak Bergarako Batzokian egin zuen astelehenean asteroko bilera.

Juan Jose Ibarretxe lehendakaria ordu biak pasatxo iritsi zen Bergara eta, besteak beste, Victoriano Gallastegi alkateak, Iñigo Alberdi Uri Batzarreko presidentek, Udaleko hainbat zinegotzik, Imanol Bolinaga alkate ohiak edota EAJko zenbait jarraitzailek harrera egin zioten, Ariznoa plazan. 1904ko abenduaren 12an ireki zuten Batzokia Bergaran eta lehen mendeurrenean here alderdikideen alboan egon nahi izan zuen lehendakariak. Batzokian bazkaldu eta gero, Euskadi Buru Batzarreko kideek asteroko bilera egin zuten.




Ibarretxe lehendakaria Gallastegi, Alberdi, Bolinaga eta Abajorekin.

100 BAT LAGUN DOMEKAKO BAZKARIAN
Domekan ere izan zen ospakizunik Batzokian, egun horretan betetzen baitziren 100 urte Batzokia zabaldu zutenetik. Josu Jon

Imaz EBBko presidentea eta Joseba Egibar GBBko presidentea ere etorri ziren. Era berean, Petra Irazola eta Natalio Juaristi alderdi-

kide beteranoak omendu zituen Bergarako EAJk. Bukatzeko, 100 bat lagun elkartu ziren domekan egindako bazkarian.



Nafar Feria bihar San Antonion

Bihar, zapatua, Nafar Feria izango da San Antonion, bertako Gure Ametsa elkartearen eskutik. Feria 10:30ean zabalduko dute eta azken urteotan ohikoa denez, Nafarroako artisau produktuak izango dira nagusi. Jaiotzen lehiaketako sari banaketa 13:00etan izango da, ondoren Alai taldearen emanaldia, Xabier Oregi *Panti-ri* omenaldia eta azkenik pintxoak eta herri bazkaria Gure Ametsa elkartearen.

Arostegiko atea ekarri dute, zaharberritu eta gero

E.M.

Martitzenean Arostegi jauregiko atea ekarri zuten Donostiatik. Apirilean eraman zuten zaharberritzea eta aurrerantzean Arostegin jarriko duten erakusketa aretoan izango da ikusgai. Albayalde enpresak egin ditu atearen berritze lanak.


Ia zortzi hilabetez egon da Arostegiko atea Donostian, apirilaren 22an eraman baitzuten. Esan bezala, Donostiako Albayalde enpresa arduratu da atea berritzeaz. Atea XVI. mendekoa da eta urtetan kalera begira egon denez, nahiko hondatua zegoen, beheko partean batez ere. Landutako erliebeak ere galtzen hasiak ziren. Egindako berritze lanek 28.700 euro inguruko aurrekontua izan dute.

Martitzen goizean ekarri zuten atea Donostiatik. Sei lagun

aritu ziren atea bere jatorrizko lekuan jartzen. Ateko orrietako bakoitzak 350-400 kilo inguruko pisua dauka, Xabier Aranburu udal museologoaren arabera. Aranbururekin batera, Jon Bera-sain Albayaldeko zaharberritzailea ere bertan zen, atea kokatzeko lanak jarraitzen. Atea berriro ez hondatzeko, Arostegin izango den erakusketa aretoan egongo da ikusgai aurrerantzean. Xabier Aranburu atear duen balioa goraiatu zuen martitzenean berriz ere: "Arte lan bikaina da, ez dago horrelako asko, Gipuzkoan ez behintzat".

INAUGURAZIOA, ZEHAZTEKE

Hasiera baten, erakusketa aretoa iraila aldera zabaltzekoa zen. Ondoren, Udalak abenduan zabalduko zutela agindu zuen, eta horrela dago jasota Udazken Kultureko programazioan. Hala ere, oraindik ez dute inaugurazio datarik zehaztu.



EDU MENDIBIL

XVI. mendeko ate errenazentista erakusketa aretoko ezker paretan jarri dute.

etxalar
kafetegia
kruasantegia

Boni Laskurain 4
BERGARA
943 76 50 68

POL-POL
Taberna



943 76 07 78. Bergara

ETXE BERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA
Tel.: 943 76 23 94 / 943 76 12 65

GABONAK/ Kontzertua 22:30ean hasiko da eta sarrerak sei eurotan jarri dituzte salgai, ohiko tokietan

Banda, Aritzeta, Gabero, Orfeoia eta Orkestraren Gabonetako kontzertua bihar

E.M.

Gabonen atarian ohikoa denez, Udal Musika Bandak, Aritzeta abesbatzak, Orkestra Sinfonikoak eta Orfeoia emanaldia egingo dute bihar, zapatua, Udal Pilotalekuan, 22:30ean. Amaieran, talde guztiek Mikel Laboaren *Baga, biga, higa* eskainiko dute.

Kontzertua hasteko, Udal Musika Bandak bi lan eskainiko ditu, *Guillermo Tell* (Rossiniarena) eta *White Christmas*, Berlinena. Ondoren, Aritzeta abesbatzaren txanda izango da; Imanol Urtzelai zuzendutako taldeak honako kantuak abestuko ditu: *Cantate domino* (Miskinis), *Juramento* (Silva), *Only you* (Flying Pickets) eta *Hator hator* (Guridi). Bergarako Orkestra Sinfonikoak, berriz, bi lan prestatu ditu bihar: *El lago de los cisnes* eta *Brooksen The producers* izenburuko lana hain zuzen ere.

Bergarako Orfeoia eta Gabero gazteen abesbatzak elkarrekin jardungo dute bihar. David Azur-


tzaren zuzendaritzapean *La rose complète* (Lauridsen), *Detår en ros utsprungun* (Praetorius-Sandström) eta *Trikitauki* (Azurtza berarena) eskainiko dituzte.

Eta kontzertuaren amaieran, ohikoa den moduan, talde guztiak batera aterako dira, Mikel Laboaren *Baga, biga, higa* eskaintzera. Alfredo Gonzalez Chirlaque izango da zuzendari lanetan. Orkestazioa, berriz, Enrique Ugartek egin du eta bakarlarria Aitzol Muxika izango da.

Biharko kontzerturako sarrerak Frontoiko tabernan, Lazkano oinetako dendan eta kultura etxean daude salgai, sei euroren truke.

OLENTZERO, JOLASPARKEA, ERREGEAK

Gabonetako ekitaldiekin jarraituz, Olentzero abenduaren 24an izango da San Martin plazan, 18:30ean. Bestalde, abenduaren 27tik 30era bitartean Gabonetako jolasparkea izango da kiroldegian. Urtarrilaren 5ean, berriz, Erregeen Kalgata egingo da 19:30ean. Aurretik, Bizar Zuri izango da San Martin plazan, 18:00etan.



Irudian, Bergarako Orkestra Sinfonikoa, iazko Gabonetako kontzertuan.

Udaletxe sarreran jaiotza jarri dute

Gabonetako argiak piztu eta megafoniatik Gabon kantak eskaintzearekin batera, udaletxe sarreran jaiotza dago ikusgai egunotan. Simon Arrieta zeramika taldeko Arantxa Elkoroiribe, Maria Jesus Manzisidor, Iñaki Olabarria eta Xabier Zabalak eginikoa da, eta bertan dira San Jose, Ama Birjina, Jesus Haurtxoa eta hiru erregeak. Iaztik nobedade nagusia zera da: figura guztiak San Pedroko portikoaren erreproduktzio baten biltzen direla. 2.000 teila txiki erabili dituzte.

LABUR

Esklerosi anizkoitzaren eguna dela eta, mahai informatiboa jarriko dute zapatuan azokan

Bihar, zapatua, esklerosi anizkoitzaren eguna dela eta, mahai informatiboa jarriko dute goizean zehar Oxirondoko azokaren inguruan. Esklerosiaren gaineko argibideak emango dira, gaitz horrekiko jendearen sentsibilitatea pizteko asmoz.

EHNA tramitatzeko aukera izango da hileroko azken zapatuan, Irizar jauregiko sarreran

Bai Euskal Herriari plataformak jakitera eman duenez, hileroko azken zapatuan EHNA tramitatzeko aukera izango da Irizar jauregian, 11:30etik 13:30era. Hala ere, abenduan, hilaren 30ean (eguna) izango da horretarako aukera. Hiru argazki, errolda ziurtagarria eta 15 euro eraman beharko dute interesatuek. Bai Euskal Herriari plataformaren arabera, orain arte jasotako erantzuna oso ona izan da, Bergaran 900 EHNA inguru egin baitira. Agiriaren erabilera bultzatzeko kanpaina egingo dute urtarriletik aurrera.



ARANE KRISTALDEGIA

Artekalea, 18-behea.
BERGARA
Tel.: 943 76 74 09
670 483 903

Dixula BOKATAK DAUZKAGU

Barrenkalea 32
BERGARA
Tel.: 943 76 44 95

Kabutzia

ARRAINDEGIA

Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62

REMENTERIA Altzariak

Egongelak
Logelak
Aukera guztiak
Enkarguan

Artekalea, 6
BERGARA
943 76 13 29

Sugoi

ERLOJUAK,
ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULAGAILUAK...

Irizar pasealekua 2 behea
943 76 59 54 BERGARA

MARRAZKI LEHIAKETA / Miren Gonzalezen lana izan da onena, epaimahaikoen iritziz

Jardunek antolatutako Olentzero Marrazki Lehiaketan 631 lan

ERATU AGIRREAZALDEGI

Jardun elkarteak antolatutako marrazki lehiaketak badu irabazlea. Aste honetako BERRIGARAKO azalean agertzen den marrazkia Miren Gonzalezena da. Aurkeztutako 631 lanen artean Mirenena izan da onena, epaimahaikoen iritziz.

Jardun elkarteak III. Olentzero Marrazki Lehiaketa antolatu du. Lehiaketaren helburua Bergarako umeen artean Olentzeroren irudia indartzea izan da eta horretarako Olentzero bat marraztu behar izan dute.

Lehiaketan, Bergarako Aranzadi, Mariaren Lagundia eta San Martin ikastetxeetako eta Angiozarko Herri Eskolako ikasleek


hartu dute parte. 6 eta 11 urte bitarteko 631 haurren marrazkiak jaso dituzte.

Adin bakoitzeko onenei eman diete saria: euren marrazkiekin egindako koadroa, liburu bat eta gozokiak. Horrez gain, sari nagusi bat ere banatu da: Miren Gonzalezen marrazkia da, hain zuzen ere, aste honetako BERRIGARAKO azalean agertu dena.


LAN POLITAK

Epaimahaian, Jardun elkarteak Lorea Zurututza eta BERRIGARAKO maketatzailerak Maitena Arana izan dira.

Euren esanetan, "lan politik aurkeztu dituzte umeek. Ohiko Olentzeroren irudiaz gain marrazki modernoak ere ikusi ditugu; haurrek irudimen handia daukatela ikusi dugu".




MIRENAMAIA MUXIKA
6 urte
Mariaren Lagundia
1. mailako onena



MIREN GONZALEZ
7 urte
Aranzadi ikastola
2. mailako onena eta sari nagusia




KARMELE URIBESALGO
8 urte
San Martin ikastetxea
3. mailako onena



UXUE OLAZIREGI
9 urte
Aranzadi ikastola
4. mailako onena



JOSU CORDOVILLA
9 urte
Mariaren Lagundia
5. mailako onena



LIBE SAN MIGEL
11 urte
Aranzadi ikastola
6. mailako onena

LABUR

Kontzertuak eta dardo txapelketa gaztetxean

Bihar zapatua kontzertua izango da 22:30ean. Basauriko Pozo Septiko eta Aske eta Alonsotegiko J.A.N. taldeek jardungo dute. Bestalde, abenduaren 30erako dardo txapelketa antolatu dute; 21:00etan hasiko da. Urtea amaitzeko, berriz, abenduaren 31n, goizaldean, herriko hainbat taldek kontzertua egingo dute. Gaztetxean urteko lehen kontzertua urtarrilaren 8an izango da, 22:30ean, Kudai eta Basaki taldeekin.

Loquillo aurten ere Jam aretoan izango da zapatuan

Gaur, barikua, Stiff Little Finger punk taldearen kontzertua izango da 22:00etan hasita. *Guitar and Drum* azken laneako abestiak eskainiko dituzte. Aurretik jardungo dute Brigada Criminal taldekoek. Bestalde, urteroko bisita egingez, Loquillo y Trogloditas etorriko da bihar, zapatua, Jam aretora. 23:00etan izango da kontzertua eta Crines taldeak ere jardungo du. Urtarrilaren 8an, berriz, Tierra Santa taldearen emanaldia egongo da 22:00etan.

Musika Eskolako ikasleen jaialdia martitzenean

Gabonetako kontzertua eskainiko dute Musika Eskolako ikasleek datorren martitzenean 19:00etan Udal Pilotalekuan. Suzuki taldeak, Musika Eskolako irakasleek, haurren abesbatzak, akordeoi orkestrak, gazteen bandak eta orkestra sinfonikoak jardungo dute. Amaieran denek batera eskainiko dute kantu bat eta *Betizu*-ko Uxue Rodriguezek bakarlari modura jardungo du. Hark egingo ditu aurkezle lanak Tere Arantziarekin batera.

Dietetika eta Nutrizio Kontsulta

- Osasun arazoak
- Balorazio nutrizionala
- Dieta pertsonalizatuak

- Etxez-etxeko zerbitzua
- Ikastaroak


(...) **mireia alberdi**
DIETISTA-NUTRIZIONISTA

(t) 943 76 60 45
(s) 646 43 34 58
(e) mireialber@euskalnet.net

Ibargarai 44 BERGARA
(t) 943 76 73 43

Olaran etxea, herriko plaza 3
20577 ANTZUOLA

Gabon hauetan ere...



Polas
Zure
Opari Denda





ARTXIBOA

Orain arte jokaturako 15 partiduetatik bi besterik ez du irabazi Bergarak.

FUTBOLA

Bergara-Zestoa zapatuan Agorrosinen, 15:30ean

Lehen itzulera amaitzeko lau partiduren faltan, Bergara azken aurreko tokian dago

EDU MENDIBIL

Bergara KEko preferente mailako futbol taldeak Zestoa hartuko du zapatuan Agorrosinen, 15:30ean. Bergararrak sailkapeneko azken aurreko tokian dira, 12 punturekin.

Ligako lehen itzulera amaitzeko lau partidu besterik ez da gertatzen eta mahoneroak 19. postuan dira. Orain arte jokaturako 15 partiduetan 12 puntu lortu dituzte: bi partidu irabazi, sei berdindu eta zazpi galdu dituzte Igor Gordobil eta Andoni Azkargortaren jokalariek. Bergararen atzetik talde bakarra da sailkapenean, Oiartzun, zortzi punturekin.

Aurreko jardunaldian 4-1 galdu zuen Bergarak Oñatin, Aloña Mendiren aurka. Partiduaren bigarren minutuan Garinek sartutako gol bati esker bergararrak

markagailuan aurreratu ziren arren, Aloña buelta eman zion partiduari: azken 25 minutuetan lau gol jaso zituen Bergarak.

Biharko Zestoaren aurkako partidua garrantzi handikoa da. Izan ere, zestoarrak 15. postuan daude, 18 punturekin. Azken jardunaldian Oiartzuni irabazi egin zioten, 2-1.

HIRU PARTIDU IPINTZAN

Zapatuan beste hiru partidu jokatuko dira Ipintzan: infantil mai-

lako futbol-8ko taldeak Arizmendiren aurka jokatuko du, 10:00etan; ondoren, Bergara eta Eibartarrak taldeak izango dira aurrez aurre, 12:00etan; azkenik, arratsaldean, senior mailako nesken taldeak Aloña Mendiren aurka neurtuko ditu indarrak, 17:30ean.

ESKUBALOIA KIROLDEGIAN

Bestalde, bihar, zapatua, bi eskubalo partidu jokatuko dira Labegarietako kiroldegian. Josetxo Muniategik zuzentzen duen senior mailako taldeak Elgoibar izango du bisitari, 16:15ean. Bergarak Beasainen kontra galdu zuen azken jardunaldian, 25-29. Jarraian, Xabier Lijoren kadete mailako mutilen taldeak Zarautzen aurka jokatuko du, 17:45ean. Domekan Hondarribian galdu zuten, 25-21, jokalarien eta epailearen arteko protesta artean.

*Domekan Oñatin
0-1 aurreratu
ziren arren, 4-1
galdu zuten
mahoneroek*

KARATE

Karateka gaztetxoek Gabonetako txapelketa jokatuko da domeka goizean Labegarietan

Gipuzkoako karate txapelketan, Jone Agirrezabal lehena izan zen gerriko laranja artekoetan; Alazne Murgizu eta Matxalen Zezeaga hirugarren sailkatu ziren. Gerriko beltza artekoetan, berriz, Ane Vicente eta Haizea Inarra laugarren izan ziren. Benjamin mailan, Irati Rodriguez laugarrena izan zen Usurbilen. Gipuzkoako Gabon karate txapelketa jokatuko da domekan kiroldegian, 10:00etan.

KIROLA EUSKARAZ

Euskarazko kirol fitxa didaktikoak sortzeko beka deitu dituzte kirol zerbitzuek

Debarroko kirol zerbitzuek kirol materiala euskaraz sortzeko beka deitu dituzte. Hirugarren adineko gimnasia ariketak eta uretako gimnasiaren (*aquagym*) gaineko fitxa didaktikoak sortzea da helburua. Beka horien 15. ekitaldia da aurtengoa. Eskabideak Bergarako Udaleko Kirol Zerbitzura bidal daitezke, urtarrilaren 30a baino lehen. Argibideak 943 77 91 67 telefono zenbakian.

KIROL ZERBITZUA

Kirol instalazioak erabiltzeko izenematea martitzenera arte izango da zabalik

Kirol Zerbitzuak aditzera eman duenez, datorren urtean Labegarietako tenis pista eta herriko hainbat pilotaleku errentan hartzeko eskaerak egiteko epea martitzenera arte, abenduaren 21era arte, izango da zabalik. Kirol eremuok urte osorako eta zozketa bidez banatuko dira. Pilotalekuak hauek dira: Angiozar, Basalgo, Elorregi eta Zabalotegikoa. Beraz, interesatuek Kirol Zerbitzura jo beharko dute eskaera orria betetzeko. Argibideak 943 77 91 67 telefono zenbakian.

FOTOKIROLA



Shotokaneko karatekak, sarituak

Shotokan taldekoak bikain aritu ziren Euskadiko Txapelketan; kumitetan, Markel Larrañaga txapeldu izan zen, Jon Gonzalez eta Miren Laskurain hirugarren postuan sailkatu ziren eta Unai Zabarte laugarren. Katetan, Rakel Blancok bigarren postua eskuratu zuen eta Miren eta Unai laugarren tokian sailkatu ziren. Irudian Shotokanekoak, Gasteizen.

Barceló



Bidaiak



3. ADINEKOAK BENIDORMERA

- Promozio berezia, martxoaren 5etik 19ra

Autobusa Bergararik Benidormera zuzenean



ASTEBURUETAN LUZ ARDIDENERA!

- Autobusa Eibartik
- 122 eurotik aurrera
- 3 egun 2 gau
- Promozio baliogarria: Abenduaren 17tik martxoaren 18ra arte.

APUNTATU ZAITEZ!!!

Ibargarai 8 • Tel.: 943 76 08 43

Muguruza eta Gutierrez hirugarren postuaren bila bihar, Asteasun

E.M.
Ander Muguruzak eta Igor Gutierrezek galdu egin zuten Gipuzkoako Txapelketako finalerdietan, Huizi-Arrutiren aurka, 22-20. Hirugarren postua eskuratzeko neurketa izango dute bihar, Asteasun.

Aurreko zapatuan partidu borrokatua izan zuten bergararrek Asteasun bertan. 7-1 eta 11-4 gal-tzen joan ostean, markagailuan 12-14 aurreratzea lortu zuten Muguruzak eta Gutierrezek. Hala ere, hortik aurrera usurbildarrak izan ziren nagusi; azkenean, esan bezala, Huizik eta Arrutik 22-20 irabazi zuten. Bihar, Asteasun, senior mailako finalean, Erroizenea eta Argote (Bergara Hiria eskuratu zuen bikotea) izango dituzte aurrez aurre.

Hirugarren postua eskuratzeko partiduan, Amezketako Baez anaien kontra neurtuko dituzte indarrak bergararrek. Partidua finalaren aurretik jokatuko da, 18:00etan.

Bergara KEko pilota sailak izan du Gipuzkoako Txapelketako azken fasea antolatze



Muguruzak eta Gutierrezek Baez anaiak izango dituzte aurrez aurre bihar, Asteasun.

aukera, baina Gabonetako kontzertua dela eta, ezin izan dute azkenean finalerdiak eta finalak Bergarara ekarri. Reyes Azkoitiaren hitzetan, "beste aukera bat galdu dugu pilotazaleei amateur mailako ikuskizun onenetakoa eskaintzeko".

GABON SARIKO FINALAK

Bestalde, Gabon Sariko gazte-txoen finalak abenduaren 30ean jokatuko dira Udal Pilotalekuan, 17:00etan. Kadete, gazte eta senior mailakoak, hilaren 29an izango dira, 18:00etan. 130 bat pilotarik jardun dute Gabon Sarian.



Bergara KEko lehen gazte mailako taldea denboraldi bikaina egiten ari da.

Reala, Eibar, Aloña eta Bergara Gabonetako txapelketan

E.M.

Urtero bezala, Bergara KEk gazte mailako Gabonetako Futbol Txapelketa antolatu du.

Lau talde izango dira lehen: Reala, Aloña Mendi, Eibar eta Bergara. Ohikoa denez, lehen finalerdian, Reala eta Bergara izango dira aurrez aurre.

Abenduaren 29an jokatuko dute partidua Ipintzan, arratsaldeko 17:00etan. Hurrengo egunean, hilaren 30ean, ordu eta

toki berean, Eibarrek eta Aloña Mendik finalean toki bat izateko neurketa izango dute. Finala abenduaren 31n izango da Ipintzako zelaian, arratsaldeko 16:00etan.

Maila handiko taldeak izango dira lehen. Bergarako gazte mailako taldea denboraldi bikaina egiten ari da: David Lopez de Abetxuko eta Jose Ramon Beristainen mutilak sailkapeneko goialdean dira. Zapatuan, 7-0 irabazi zioten Lengokoak taldeari.

Unai Beitiak eta Unai Perez de Arenazak Bhagiratira espedizioa gertatzen dihardute

E.M.
Unai Perez de Arenaza eta Unai Beitiak bergarar mendizaleek indiar Himalaian dagoen Bhagiratira mendira joateko espedizioa gertatzen dihardute. Hurrengo urtean, iraila aldera joateko asmoa dute Baghiratiko (6.454 m.) paretak eskalatzera.

Esan bezala, Baghirati mendia Indiaren iparraldean, Himalaiko eremuan dago, Gharwal-eko eskualdean hain zuzen. Beitiak eta Perez de Arenazak azaldutakoaren arabera, hiru bidek zeharkatzen dute Baghiratiko ekial-

deko paretak. Bergarar mendizaleek *Estrella imposible* deritzon bidea igo nahi dute: "Bere zailtasunagatik bi errepikapen besterik ez ditu eta biderik tekniko eta zailenetakoa da. Ikusgarria da".

2005eko udazkenean joateko asmoa dute: "Garairik egokiena iraila litzateke, eguraldiak lagunduta eskaladak berak duen zailtasunei aurre egin ahal izateko". Biek ere esperientzia luzea daukate; Perez de Arenazak Shisha Pangman bide berria ireki berri du. Biak ere Lleidan dira orain, besteak beste, babesleak topatzeko ahaleginetan. Espedizioak 9.000 euro inguruko aurrekontua dauka.



Argazkian, Unai Beitiak Yosemiteko paretetan.

LABEGARAIETA

PARTIDUAK

ZAPATUAN, KANPOAN

10:30: Belengua-Egurre K. Piper.
11:30: Pirulotarrak-Komando . . . Agirreb.
12:30: Agirrebeña-De Resaka . . . Pirulota.

DOMEKAN, KANPOAN

09:30: Kalaveras-Txipiron Ganbara
10:30: PDS-Ganbara Kalaver.
11:30: Irubide-Brescia PDS
12:30: Cosa Nostra-Pagomendi . . Irubide

DOMEKAN, BARRUAN

16:00: SDTNT-Canalejas All Blacks
17:00: Pirulotarrak-All Blacks . . . Bayer
18:00: Bayer-Arrano Pirulota.

OHARRA: Hurrengo domekan, abenduaren 26an, partidua izatea nahi duten taldeek antolaketari jakinarazi beharko diote aurretik. Gabonen ostean, txapelketa urtarillaren 8-9ko aste bukaeran hasiko da berriz. Aste bukaera horretan jokatzerik ez dutenei aurrez abisatzea eskatzen zaie.

ETXAGI JATETXEA

Eraman eguneko menua zure etxera!



Masterreka 8 • Tel.: 943 76 53 12




Urteaga 9
BERGARA
Tf. 943 76 18 45

FRONTOI



TABERNA


Fraiskozuri z/g.
BERGARA
943 76 05 09



Belarritakoak
HARAIA ZILARREZKO BITXIAK
Boni Laskurain 4



Skunk funk txamarra
NINFA JANTZI DENDA
Ibargarai 6



Maria Quiles
GALARRETA OINETAKO DENDA
Irizar 2



Deidad lentzeria
GRACIAN MERTZERIA
Bidekurutzeta 6



Señoretta pijama
IGARZA MERTZERIA
D. Irala 5

**Gabonetan,
bai
ederki
herriko
dendetan**

Udazken kulturala 04



Abenduaren 18an, 22:30ean
Gabonetako kontzertua Udal pilotalekuan
Udal Musika Bandak, Aritzeta abesbatzak, Bergarako Orkestra Sinfonikoak eta Bergarako Orfeoik eskainia.

Abenduaren 21ean, 19:00etan
Musika Eskolako ikasleen kontzertua Udal pilotalekuan

Abenduaren 24an, 18:30ean
Oientzerok umeen kartak jasoko ditu San Martin plazan



Abenduaren 27, 28, 29 eta 30ean, 16:00etatik 19:30era
Haurren gabonetako jolas parkea, Labegaraieta kiroldegian

Urtarrilaren 4an, 18:00etan
Egizu lo, Tartalo
umeendako antzerkia, Novedades aretoan

Urtarrilaren 5ean,
Bizarzuri
18:00etan, San Martin plazan
Erregeen Kabalgata
19:30ean, herrian zehar



BERGARAKO UDALA

Gabon zoriotsuak herritar guztioi!



Gehixago eta hobeto programaren barruan Bergarako Udaleko Euskara Zerbitzuak argitaratua 45. zenbakixa

IEPA LAGUNOK!

U rte honetako azkeneko lehiaketarekin natorki-
zue aste honetan. Hurrengo
egubakoitzian Olentzero etorri-
ko da eta Pottokak be erregaluak
emon nahi ditu.

Horretarako, aurtengo ale
gehientsuenak erakutsi
biharko dittuzue hurrengo
egubakoitzian, eguadiako
12:00etan San Martin pla-
zan eta erregalu bat lortuko dozue. Ondo pasa!



URREZKO ARAUAK

- Ezetz asmatu nun dagon tximiñua?
- Hainbeste pertsonan artian ikusi be ez zaittut
egin!



- A ke ez dozu asmatzen nun dagon tximiñua?
- Hainbeste pertsonan artian ikusi be ez dotsut
egin!



LOTU BIKOTIAK


A. Ezetz asmau nun dagon
tximiñua?

E. Mendi puntara aillegau
garenez, ogitartekua jango
dogu.



B. Hainbeste pertsonan
artian ikusi be ez zaittut egin!

F. Zer dala eta ekarri dozu
aterkiña? Eguzkixa irten da
eta!



D. Zergaittik esaten dozu diru
rik ez daukazula? Poltsikoa
diruz beteta daukazu eta!

G. Baietz igarri zenbat
sagar daren arbola hartan?



JOLASA 'Zein ete?'

P artaide bakoitzak 'Zein ete?' jolasian familixa-
ko edo lagun baten marrazkixa egingo dau.
Pertsona hori danak ezagutu biharko dabe.


Lehenengo batek erakutsiko dau berak egind-
dako marrazkixa eta beste danak, banan-
banan, galderak egingo dotse marrazkixan
margotutakua zein dan asmatzeko:

- Egunero elkartzen zara berarekin?
- Betidanik ezagutzen dozu?
- ...



Galderak era guztietakuak
izan leizke. Baten batek
marrazkixan agertzen dan
pertsonia zein dan badakixela
uste dabenian adibidez "Hara,
amandria da eta!" esan
biharko dau.

Asmatzen daben
jokalarixa izango da
marrazkixa erakutsiko daben
hurrengua.



Eraman dotoresuna zure etxera



gelatzo s.l.

Zubillaga auzoa 1 • OÑATI

Tel.: 943 71 63 22 •

Faxa: 943 78 15 51



Gabonetako
eskaintzak

Mirari
JANTZIDENDA

Martoko 34 Bergara 943 76 23 93


URTE BERRI ON!

ZAHARREN ETXETIK

Tute, mus, briska eta billar txapelketak San Joxepen



Martitzeneko tute txapelketan 16 bikotek hartu zuten parte.



Asteazken zehar kanporaketak jokatu ostean, gaur izan da billar txapelketako finala.

RATI AGIRREAZALDEGI

Gabonak karta jokorako egokiak izan ohi dira; eta jai giroan sartzeko-edo San Joxepe elkartearen txapelketak jokatu dira asteon. Erretiratuak nor baino nor gehiago ibili dira kartetan eta billarrean.

Martitzenean tute saioa izan zuten. Guztira, 16 bikotek hartu zuten parte, gehienak gizonzkoak, baina emakumezkoek osatutako hiru bikotek ere jardun zuten. Txapelkunak Felipe Unamuno eta Pablo Rodriguez izan ziren, Felix Eguren eta Nicolas Arzelusi irabazita.

SARIAK

Eguaztenean mus txapelketa jokatu zuten eta gizonzkoak izan ziren nagusi; eguneko briska saioan, berriz, emakumeak.

Karta jokoaz gain, billar txapelketa ere izan da. Asteazken bost lagun ibili dira lehian eta gaur jokatu dituzte finalak.

SANTO TOMAS

Gabon giroa txapelketekin berotu ostean, beste ospakizun batzuk ere izango dituzte datorren astean San Joxepe elkartearen.

Abenduaren 21ean, martitzenean, Santo Tomas eguna ospatuko dute elkarteak bazkideek merienda eder batekin.

Egun horretan hain ohikoa den txistorra jango dute arratsaldean San Joxepera gerturazten direnek.

Sabela ondo bete ostean, akordeoi doinuekin dantzatzeko aukerarik ere ez da falta izango.

Bestalde, eguaztenean bingo saioa egingo dute.



San Joxepeko korua Mizpirualden bisitan

Gabonak direla eta, urtero egin ohi duten moduan, San Joxepe elkarteak zuzendaritzako kideak Mizpirualde egoitzara joango dira bisitan. Bertako adinekoekin berriketan jardungo dute eta dantza saioa ere izango da. Zuzendaritzakoak ez ezik San Joxepeko abesbatzako lagunak ere bertan izango dira kantaldia eskaintzeko gertu. Mizpirualdeko adinekoak ez ezik, jadanik elkartera joaten ez diren hainbat bazkideri ere egingo diete bisita San Joxepekoek Gabonen aitzakian.

LABUR

Errege eguneko zozketarako txartelak salgai

Errege egunean Gabonetako otar bat zozketatuko dute San Joxepe elkarteak. Horretarako, salgai ipini dituzte txartelak. Elkartearen bertan erosi ahal izango dira euro baten truke. Zerbaki saritua Errege eguneko loteriarekin bat datorrena izango da. Bestalde, Gabonetako loteria ere aterako dute erretiratuek aurtun. Abenduaren 22ko zozketarako San Joxepekoen zerbakia hau da: 54.062. Erretiratuen egoitzan agortuta dago jadanik.

AZPEITXI

Jatetxea

Aranerrika 13 behe. Bergara
943 76 55 00

TOKI-ONA
Bodegoia-taberna

Eguneroko janariak
Txitxizotzak
Kazolatxoak
Txabierroak


Matxiategi 1. BERGARA
Tel.: 943 76 39 53

IRURAK MARGOAK
DISEINUA, S.L.

Era guztietako lanak Paper pintatuak
Moketa eta sintasola Harea zorrotada
Iztuku esponjatua Iztuku faltsua

Aitziturri 6 • 95 posta kutxa • 20570 Bergara
Telefonoak: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984
Faxa: 943 76 09 32

BONOFOTOA



MIGUEL ANGEL ELKORBEREZIBAR

Orain dela 40 urte Gipuzkoako monumentu izendatu zuten jauregi honen lorategiko atekak ziren hauek. Zein da jauregia?

BERGARAROSPETSUAK

Melchor Sanchez Toca (eta 2)


KOLDO PEREIRA

Ohorezko sari ugari eman zizkioten erakunde akademikoek: besteak beste, Gaztela Berriko Medikuntza eta Kirurgia Akademiak (1837), Lisboako Medikuntza Elkarteak (1839) edota Mexikoko Medikuntza Akademiak (1840).

1837tik aurrera Madrilgo Medikuntza Akademiako osoko kide izan zen, bai eta elkarte horretako lehendakaria ere. 1840an Madrilgo Natur Zientzien Akademiako kide izendatu zuten. Lorpenik handiena 1842an eskuratu zuen, errege-etxeko zirujau izendatu baitzuten; Isabel II.a erreginari lagundu zion hainbat alditan, eta erreginak ganberako mediku izendatu eta "Tocako Markes" titulua eman zion. Errege-ganberako zirujaua izateagatik beste zenbait sari jaso zituen: Karlos III.aren Ordenako Komendadore titulua eta Isabel Katolikoaren Gurutze Handia, adibidez. Frantziako gobernuak, azkenik, Ohorezko Legioaren Ordena Inperialeko Ofizial titulua eman zion.

1880ko uztailaren 4an hil zen. Bergarara ekarri eta hilerriko familiaren hilobian lurperatu zuten.

*Lorpenik handiena
1842an eskuratu zuen,
errege-etxeko zirujau
izendatu baitzuten*



ARTIBOIA

Melchor Sanchez Toca kalea.

GALDEDEBALDE

1. Nor da Miguel Altuna ikastetxeko zuzendaria?

- A/ Jose Mari Larrañaga.
- B/ Iñaki Larrañaga.
- C/ Fernando Otaño.

2. Talde hauetatik, zeinek ez du parte hartuko zapatuko Gabonetako kontzertuan?

- A/ Gabero.
- B/ Goikobalu.
- C/ Aritzeta.

3. Zein urtetan hil zen Melchor Sanchez Toca bergarar ospetsua?

- A/ 1842an.
- B/ 1880an.
- C/ 1856an.



Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

IGOR OKINArendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Igor! Galderen erantzunak: Bonofotoa: **Euskal Gotikoa**. / Galde debalde: 1-A, 2-B, 3-C.



BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1/ 2/ 3/

Ekarri txartela **MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!**

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Suances otarrainxkak

45/65 pieza, kilo biko kaxa

11,85 €

1.972 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



JOXAN
ARRAINDEGIA



Ibargarai 24. Bergara. Tel.: 943 76 70 29

Mujika
gozotegia



Bizkotxoak
Erreilenoak
Tostoiak

Artekalea 3 **BERGARA**
943 76 10 34



Silvestre Muñoz, s.l.
pinturak

Pintura-lanak
orokorrean

•
Pintura industrialia

•
Zoru arinak:
sintasolak, moketak...

610 25 99 82
610 25 40 37
943 76 24 11

Amillaga 1, 10 pabilioia.
20570 BERGARA

ERRETRATUZAHARRA

ELGETA

Bi kintatako umeak gelan elkarrekin

Domingo Iturbe eraikineko eskola zaharretan ateratakoa da argazki hau. Argazkia atera zutenean 5 edo 6 urte izango zituzten haurrek. Urte batzuk eman zituzten eskola zaharretan, baina berria ere probatutakoak dira. Laster eskola zaharrak zeuden eraikinari emango diote beste erabilerarik: mendi museoa egingo dute bertan.

Bi maila ezberdinetako ikasleak gela berean zeuden orduan. 1974an eta 1975ean jaiotako umeak denak. Jakin dugunez 1975ekoa kinta oparoa izan zen, ume asko jaiotako urte hartan. Gaur egun ere, haur kopuruaren arabera antolatzen dituzte taldeak, eta hainbat mailatako umeek elkarrekin ikasten dute geletan.

Hona hemen erretratuko enak: Goiko ilaran, ezkerretik hasita: Eneida Elorriaga, Ana Zabala, Iban Arantzabal, Ibane Abasolo, Mikel Mandaluniz, Ainhoa Larrañaga, Mainer Camacho, Maitane Garai eta Kepa Merino.

Erdian: Unai Elorriaga, Haritz Gallastegi, Igor Arizmendiarieta, Olaia Jimenez, Maite Retolaza, Alazne Azkarate, Etor Sarasua, Iñigo Eraso eta Asier Iturriagaetxebarria.

Behean: Oscar Andres, Alexander Cristobal, Amaia Gorroño (irakaslea), Gaizka Bolinaga, Oier Villa eta Koldo Arantzeta.

Argazkia: Herri Eskola



ADI, IRAKURLE!

Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zatorz BERRIGARAra (Irizar jauregia, Barrenkalea 33) edo Elgetako kultura etxera. Zain gaituzu!



ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.

Matxiategi 8. BERGARA
 Tel.: 943 76 15 09

ARDATZA

Brikolajea

Ateak eta zokaloak
 Horma-armairuak
 Sarraillak
 Heldulekuak

Koadroak markoan ipini
 Era guztietako moldurak
 Apalak
 Kaxoiak

Masterreka 4-behea. Bergara. 943 76 18 93



GAZTELU

BURDINKI DENDA

Mintegi 1 • Tel.: 943 76 32 48 / 943 76 34 50 • BERGARA

KONDE PANADEROKUA



Burdiñate 1
 943 76 02 57
 Toki Eder plaza 3
 943 76 14 87
 BERGARA



Etxebizitzak, garajeak, lokal komertzialak, baserriak, lur sailak...

Burdiñate BERGARA Tel.: 646 665 854
 San Frantzisko 51, 1-D ELGOIBAR Tel.: 943 74 44 67

Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2004ko abenduaren 17a / 226. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com • Lege gordailua: SS1179/02

Ekitaldiz beteta datorrigu Gabon inguruko egitaraua

AINZANE IRIZAR

Antzerkia, Gabon kantak, mendi irteera, umeendako jolasak... Denetik izango dugu aurten ere Gabon jaietan. Bihar bertan, Gabonen atarian, Antzerkiola Imaginarioak Ardoaz bakarrizketa eskainiko digu, Ander Lipus aktore ezagunaren eskutik.

Gabonen atarian gaude, eta ekitaldiz beteta datozkigu datozen asteak. Bihar, zapatua, izango dugu lehendabiziko ekitaldia; Ander Lipus Antzerkiola Imaginarioko aktoreak, *Ardoaz* bakarrizketa taularatuko digu. Olanan etxeko aretoan izango da hori, 22:00etan. Underground-en trilogia osatzen duten bakarrizketetako bat dugu *Ardoaz*; beste biak dira *Minutu bakarra* eta *Mis rarezas dirias tu*.

Martitzen arratsaldean, hilak 21, Santo Tomas azoka egingo dute Herri Ikastetxeko neska-mutikoek; hantxe jarriko dituzte ikusgai baserriko era guztietako produktuak, bai jakiak, baita animaliak ere.

Gabon egunean herriko hainbat talde irtengo dira kantura.



ANTZERKIOLA IMAGINARIOA

Ander Lipusek *Ardoaz* bakarrizketa eskainiko digu bihar, zapatua.

Goizean, Herri Ikastetxekoek egingo dute kantu kalejira, eta arratsaldean, abesbatzakoek eta euskal presoek aldeko kalejirak izango ditugu. Abenduaren 30ean,

goiz eta arratsaldez, umeendako jolas parkea egongo da; abenduaren 31n, azkenik, urteko azkeneko mendi irteera egingo dute Arrolakoek, Aizkorriara.

HERRI IKASTETXEA

Ate Irekien Eguna egingo dute eskolan

Etzi, domeka, Ate Irekien Eguna izango da Herri Ikastetxean. Goiz osoan egongo da zabalik ikastetxea, 11:00etatik 14:00etara, eta herri osoa dago gonbidatuta, ez gurasoak bakarrik. Ikastetxea bera ikusteko aukera izateaz gain, umeek egindako lanak ere jarriko dituzte ikusgai. Baita ikasle ohien aspaldiko argazkiak, diapositibak, eta abar ere. Jatekoa eta edatekoa ere banatuko dute ikastetxeko arduradunek, eskola bisitatzerakoan diren herritarren artean.

GURASOEI ESKERRAK EMAN NAHI

Horrelako egun bat antolatuta zuten azkeneko aldia izan zen ikastetxea inauguratu zuten eguna, orain dela hamabost bat urte.

Aurreko ikasturterako jantokia egin zuten. Bestalde, ikastetxeko azken solairuan, liburutegia eta ikus-entzunezkoen gela egokitu zituzten, eta guraso askok jardun zuen han lanean. Horrela, berrikuntza horiek erakutsi eta lanetan parte hartu zuten gurasoei eskerrak eman nahi dizkiete ikastetxeko arduradunek.



ARTIBOIA

Besteak beste, jantokia ikusteko aukera izango dute herritarrek.

HERRITARREN HITZA / Patxi Olabarria • Langilea

Urteari erreparaso

Urtea bukatzen ari den honetan, balorazioa egiteko garaia ere iritsi da. Egia esateko, ez da pozik egotekoa: aurten beste bi antzularrek probatu dute zer den tortura eta iaz baino preso bat gehiago dugu. Besarkada bat hiruroi!

Hala ere, gauza positiboak ere eman dizkigu aurtengo urteak: Aiherra-Antzuola Lasterkaldia eta horren inguruan ospatu ziren ekitaldi guztiek egundoko arrakasta izan zuten. Benetan egun zoragarriak izan ziren eta argi gelditu zen elkarri bizkarra eman beharrean, elkarrekin

gauza handiak egin ditzakegula.

Baina euforia hark sei egun besterik ez zituen iraun. Hurrengo ostiral goizeko 8etako plenoan, PNV-EAko alkate eta zinegotziek egun gutxi batzuk lehenago hainbeste erabili zituzten elkartasuna, herritarren partehartzea, anaikidetzeta eta elkar-lana bezalako hitzak bat-batean ahaztu egin zituzten. Beheko Auzoan 50 etxebizitza



“Uste dute behin hauteskundeak irabazita, edozer egin daitekeela”

egin eta Sagastiko parkea suntsitzearen aurka herritar mordo batek aurkeztutako sujerentzia bat bera ere ez zuten onartu. Beraiek beraienarekin jarraitzen dute. Bost antzular horiek uste dute behin hauteskundeak irabaziz gero edozer gauza egin daitekeela. Ba ez! Hauteskunde

programan inondik inora ez zenituzten aipatzen orain egin nahi dituzuen obra guzti

horiek, beraz, ez esan herritarrek hori nahi dutela.

Bukatzeke, plenotan galdetzeko bi egun lehenago baimena eskatu behar dugunez, ohiturari jarraituz, Alkate Jauna, zure baimenarekin galdera bat egin nahi nizuke. Erantzuteko hartu nahi duzun denbora guztia, baina uste dut antzularrok erantzun bat merezi dugula. Hauxe da nire galdera: Buztinzuriko baldosen koloreari buruz herriari galdetu bazenioten, zergatik ez duzue herri galdeketa egin nahi Antzulari horrenbeste eragiten dien proiektu hauen inguruan?

KIROLA

PARTIDUAK

FUTBOLA

Abenduak 18
11:00: Antzuola-Bergara (Neskek)
15:30: Antzuola-Lagun Onak (Erreg.)
17:30: Antzuola-Amara Berri (Gazteak)

EMAITZAK

FUTBOLA

Santo Tomas 1 Antzuola 2 (Gazteak)
Antzuola 9 Soraluze 1 (Kadeteak)
Eibar 7 Antzuola 0 (Neskek)

PILOTA

Gipuzkoako Txapelketa
Ilunpe-Olalde (Eskuz kad.) 22-4
Eskoriatza-Olalde (Eskuz inf.) . . . 18-17
Olalde-Altzatarrak II (Paletaz) . . . 30-35

PRESOAK

'600 baietz!' kanpaina abiarazi dute Patxi Cabori laguntzeko

AINTZANE IRIZAR

Patxi Caboren koadrilako lagunek 600 euro baietz! kanpaina abiarazi dute. Kanpainaren helburua da hilerro-hilerro, herritarren artean, 600 euro batzea. Diru hori izango da Patxiaren etxebizitzaren mailegua ordaintzeko, preso dagoen bitartean.

Azaroaren 16an atxilotu zuten Patxi eta Martuteneko espetxean dago preso. Gauzak horrela, eta etxebizitza ordaintzeko maileguari aurre ezin diola egin ikusita, *600 euro baietz!* ekimena abiarazi dute bere lagunek.

Ekimen horren helburua zera da: herritarren artean, hilean 600 euro batzea, maileguari aurre egin ahal izateko. Horretarako, hilerro bost euro ordaintzeko prest egongo liratekeen 120 herritar lortu nahi dituzte. Patxi epaitu arte edo aske geratu arte jarraituko dute ekimenarekin.

Ekimenean parte hartu nahi dutenek horretarako aukera izango dute Larrea eta Gailur tabernetan izena emanda edo Patxiaren



Koadrilako lagunek abiarazi dute Patxiaren aldeko kanpaina.

koadrilakoekin berba eginda. Herriko enpresa nagusienetan ere osatu dituzte taldeak informazioa emateko.

Abenduan egingo dute kanpaina eta urtarrilean hasiko dira dirua batzen.

MARTUTENEN, ASTELEHENETIK

Atxilotu eta astebetera, azaroaren 23an, hain zuzen ere, Arrasateko ospitalera eramán zuten Patxi, eta ebakuntza egin zioten. Hantxe egon da abenduaren 13ra arte. Ordutik hona Martutenen dago.



Pilotako finalak bihar, zapatua

Bihar, zapatua, jokatu dute Herri Mailako Eskuz Bina-kako Pilota Txapelketako finala. Udal Pilotalekuan izango da partidu hori, 18:30ean. Mikel Urtzelaik eta Jon Gurutz Biterik aurrez aurre izango dituzte Julen Iparra-girre eta Mikel Larrañaga.

Juan Simon Aristik eta Jose Manuel Aranburuk, berriz, Luis Larrea eta Jon Aranguren aurka jokatu dute, hirugarren postua erabakitzeko. Argazkian, final nagusia jokatu duten pilotariak./A. I.

LABUR

Areto futboleko 24 orduak hilaren 28tik 29ra

Gazte Asanbladak antolatuta, areto futboleko 24 orduko txapelketa izango dugu hilaren 28tik 29ra, frontoian. Talde bakoitzak 40 euro ordaindu beharko ditu izena ematera-koan. Horretarako aukera duzue hilaren 20ra arte, gaztetxean eta Surpe, Larrea eta Gailur tabernetan.

Alfonso Castroren oroimenezko areto futbol txapelketa

AKEk antolatuta, Alfonso Castroren oroimenezko V. Areto Futbol Txapelketa jokatu dute hilaren 27an eta 28an, frontoian. 8 eta 14 urte bitarteko neska-mutikoendako txapelketa da hori.

Astelehen goizean hasi eta martitzen eguerdian bukatuko da txapelketa.

Barkeroren omenezko partidua hilaren 30ean

Urtero bezala, Xabier Barkeroren omenezko partidua jokatu dute. Bosgarren aldia da aurtengoa. Hilaren 30ean izango da hori, Estalan, 16:00etan. Barkeroren taldekide izandakoek gaur egungo jokalarien aurka jardungo dute. Iluntzean, berriz, lagun arteko afaria egingo dute.

Domekan, hilak 12, independentziaren 375. urteurrena

Aurreko asteko domekan, hilak 12, bete ziren 375 urte Antzuolak independentzia lortu zuela. 1629. urteko abenduaren 12an, hain zuzen ere, gertatu zen hori. Gazte Asanbladako kideek adierazi digutenez, iaz bezala, aurreko martxorako antolatuko dute Independentzia Eguna.

IRAKURLIAREN TXOKUA

UDALAREN JOKAERA DELA ETA Beheko Auzokook ez gaude ados Arau Subsidiarioak aldatzeko Udalaren erabakiarekin, ezta bere jarrerarekin eta Toledo Taldearen txosten teknikoarekin ere. Arauok aldatzeko erabakiak prozesu garrantzitsua ireki du, baina, tamalez, afektatutako auzokoen eta udal ordezkarietatik kanpo dauden alderdien iritziak kontuan hartu gabe egin da.

Bestalde, Toledo Taldeak bat-batean gure auzoarekiko azaldu duen sentsibilitatea susmagarria iruditzen zaigu, zera onartzen duenean: "necesidad prioritaria de intervenir en la cohesión urbana de la zona de Beheko Auzoa, historicamente deficitaria y marginada". Toledok urteak daramatza herrian lanean eta sekula ez dio gure auzoa hobetzeari lehentasunik eman.

Egia da auzoak hobekuntza integrala behar dela, herriarekiko kohesioa barne; baina, ez dugu uste 50 etxebizitza egiteak inguruko auzotarren bizi-kalitatea hobetuko duenik, are gutxiago, eremu hain txiki-eginda eta aisialdi eremu hain garrantzitsuenak kenduta; oster, Beheko Auzoko etxebizitzaren egoerak okerrera egingo du.

Prozesu honetan, salagarria da EAJko alkatearen jarrera hertsia, ez demokratikoa eta sentsibilitate gabekoa, berak gauza asko egitearren ez die inongo kasurik egiten bere planak zalan-tzan jartzen dituztenei. Auzokoekin egindako batzar informatzaile baten zera esan zuen: "plana aurrera eramango dugu zuek ados ez bazaudete ere". Gure iritzi, hauek ez dira herritarren interesa eta partaidetza bultzatzeko jarrera egokiak. Herritarren iritziak jaso beharko lituzkete.

BEHEKO AUZOKO BATZORDEA



IGELTSEROTZA

Jose Luis Zabalo

Kalegoi 9, 1. solairua
ANTZUOLA.
Tel. 943 76 60 89
Faxa: 943 76 60 14**ZAHAR BERRITZEAK:**Fatxadak
Bainugela eta sukaldea
Lokal komertzialak
TeilatuakEta orain....
**GREMIOEN
KOORDINAZIOA**SUKALDEKO ALTZARIAK
Harizki**MUEBLES
IGEA**Sukalderako eta
bainurako altzariak
Altzari rustikoetan
espezializatuak

Zurrategi plaza 4, behe. ANTZUOLA. Tel. eta faxa 943 78 71 80

Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2004ko abenduaren 17a / 210. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Irati Agirreazaldegia • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com • Lege gordailua: SS475/95

Gabonak girotzeko hainbat ekitaldi, asteburuan hasita

IRATI AGIRREAZALDEGI

Herrian Gabon giroa sortzeko asmoz hainbat ekintza antolatu dituzte datozen egunetarako. Besteak beste, zuhaitzen lehiaketa, Olentzeroren etorrera, parkea eta herri jaialdia izango dira. Herriko hainbat toki argiz apainduko dute egun hauetarako.

Gaur piztuko dituzte Gabonetako argiak arkuaren alde banatan, udaletxean eta plazan. Horrela hasiko dira jai hauetarako iragarritako ekintzak.

Argiak egunero piztuko dituzte urtarrilaren 9ra bitartean. Horien kostua 1.700 euro da.

Gabonetako apaingarri diren zuhaitzak ere herriko denda eta tabernetan egongo dira ikusgai egunotan. Izan ere, gaur amaitu da lehiaketarako Gabonetako zuhaitzak aurkezteko epea, eta jendaurrean ikusgai egon ostean, datorren abenduaren 23an jakinaraziko dute zein den onena.

Sari banaketaren egun berean Olentzero etorriko da herrira. 18:30ean etorriko da Olentzero. Intxortatik plazara joan, eta bertan jasoko ditu herriko umeen gutunak.

Eskolako umeek ere Gabonak direla-eta egingo dituzte hainbat



Olentzero abenduaren 23an etorriko da umeen eskutitzak jasotzera.

ekintza. Abenduaren 20an, esaterako, Bilboko Gabonetako Umeen Parkera joango dira. Abenduaren 21ean, berriz, Santo Tomas ospatzeko, eskolan txoria eta opiltxoak banatuko dituzte. Bestalde, materiala birziklatuz eskolan jostailuak egingo dituzte umeek abenduaren 22an arratsaldean eta 23an goizean.

JAIALDIA ETA PARKEA

Horrez gain, umeendako jolasparkea ipiniko dute urtarrilaren 3an eta 4an arratsaldean Udal Pilotalekuan.

Umeendako ez ezik nagusiendako ere izango dira ekintzak. Abenduaren 30ean herritarren kantu jaialdia izango da Espaloia aretoan.

UMEAK



Astlehenean zabaldu zuten, eta jadanik 12 ume eman dute izena.

Ludoteka zabalik maiatzera bitartean

I.A.

Joan den astlehenean ipini zuen abian Udalak ludoteka zerbitzua. Maiatzaren amaierara arte zabalik egongo da. Ludoteka kultura etxeko lehenengo solairuan dago.

Arratsaldero 16:00etatik 19:00etara egongo da zabalik eta gurasoek umea eskolatik jaso ezin badute, aurrez abisatuta, hartaz ere arduratuko dira.

Astlehenean zabaldu zutenetik 12 ume eman dute izena jadanik. Jolasteko, eskulanak egi-

teko eta elkarrekin egoteko aukera izango dute bertan 2 eta 12 urte bitarteko umeek Nagore Oianguren zaintzapean.

Sei hilabeteko kuota 40 euro da, eta materiala erosteko erabiliko dute diru hori. Izena eman nahi duenak udaletxera edo ludotekara bertara jo dezake.

GABONETAN ERE IREKITA

Arduradunek jakinarazi digutenez Gabonetan ere irekita izango da ludoteka, abenduaren 25ean eta urtarrilaren 1ean izan ezik.

PILOTA

Gabon zahar egunean jokatuko dira beterano eta umeen finalak

I.A.

Beteranoen pilota txapelketa azkenetan da. Gaur jokatu dituzte finalerdiak eta finalak Gabon zahar egunean izango dira. Egundik aurrera umeen txapelketa ere jokatu da.

Gaur jokatu dituzte beteranoen lau t'erdiko pilota txapelketako finalerdiak 20:30ean Udal Pilotalekuan.

Lehenengo partidua Koldo Goenagak eta Roberto Basaurik Asier Morales eta Fernando Zenitagoiaren aurka jokatu dute. Bigarrena, berriz, Alex Arantzabalek eta Alberto Telleriak Jabier Bolinaga eta Iñaki Izagirreraren kontra.

Antolatzaileen esanetan Arantzabal eta Telleria, iazko irabazleak, eta Koldo Goenaga eta Roberto Basauri dira finalera iristeko bikote favoritoak.

UMEEN TXAPELKETA

Beteranoen txapelketako finalak abenduaren 31n eguerdian jokatu dira, baita umeen txapelketakoak ere.

Umeek eskuz banaka jokatu dute. Lehenengo, kanporaketak egingo dituzte, herriko ume gehienek hartzen baitute parte txapelketan.

Gabon zahar egunean finalak jokatu, parte hartu duten ume guztiek saria jasoko dute.

LABUR

Danbaka lehiaketako azken kanporaketa jokatu da gaur gauean Espaloian

Gaur, barikua, Danbaka musika lehiaketako azken kanporaketa izango da jokoan Espaloian 22:30ean hasita. Arrasateko Turbomor eta Ozen, Bergarako Stukas eta Oñatiko Sharon Stoner taldeek eskainiko dute kontzertua. Ondoren, epaimahaia finalistak aukeratu beharko ditu partaide guztien artean.

Felix Gomez lehenengo tokian dago bolo txapelketako sailkapen orokorrean

Gabonetako bolo txapelketako bigarren tiraldian 28 lagunek hartu zuten parte. Juan Luis Rodrighez izan zen lehenengo lau txirlo botata. Kopuru berarekin, bigarren, Felix Gomez; eta hirugarren hiru txirlorekin Jose Luis Gorosabel. Sailkapen orokorrean Felix Gomez da lehenengo eta Jose Luis Gorosabel bigarren. Hurrengo tiraldia bihar, zapatua, 23:30ean izango da.

ELKARRIZKETA

ANA MARI ARRIETA/PRESERVAR EL ORIGEN ELKARTEKO KIDEA

"Rio Nioko umeak elikatzeko jantokia egin nahi dugu, eta dirua jasotzen ari gara"

Argentina izan zen Ana Mari Arrieta udan. Bertako bizimodua eta beharrrak ezagututa, han jantoki bat eraikitzen. Hori aurrera ateratzeko dirua behar da, ordea. Orain kanpaina egiten dihardute dirua jasotzeko.

Argentinan egon zinen udan, baina zurea ez da bidaia arrunta izan. Zertara joan zara?

Argentinako iparraldean Rio Nio herrixkan izan naiz. Lagun batzuek ikusi zuten azken urte honetan hango umeen egoerak okerrera egin duela. Desnutrizioa handia izanik pentsatu zuten jangela bat egitea bertan, eta, laguntzeko prest geundenez, horretara joan gara, jantokia egitera. Batez ere jantokia eraikitzeko lurra egokitzen jardun nuen nik.

Zer ikusi duzu bertan?

Umeekin lan egin dugunean ikusi dugu jaten dutela, baina behin eta berriz gaixotzen direla. Ur edangarririk ez dute, beraz,


zaindu eta parasitoak kendu egin behar zaizkie eta aldi berean elikatu. Bestalde, umeekin gertuko harremana lortzea zen gure helburua, eta futbola gustuko zuteenez eurekin jokatu genuen.

Preserbar el Origen elkarteko kide zara. Zein da taldearen helburua?

Natura eta pertsonak nor bere nortasunean eta kulturaren errespetatzea. Baina han egin ahal izan dugun bakarra umei jatekoa eta osasun arloko laguntza ematea izan da. Hango jendea oso gaizki dago, ez dute kulturarik ezta oinarririk ere, baina guk ezer gutxi egin dezakegu. Beraz, gure asmoa da oinarri hori sortzea umeen elikaduratik hasita.

Jangela egin nahi duzue, eta horretarako dirua behar da.

Jangelarako bagenuen dirua, baina hara joanda hainbat familia behar larrian ikusi genituen, eta haiendako etxeak egiteko erabili genuen dirua. Orain, jangela amaitu nahi dugu, beharrezkoa delako. Horretarako dirua jasotzeko BBKn kontua ireki dugu (2095 0274 30 9105532797). Lagun-



Ana Mari Arrieta Rio Nioko (Argentina) umeen artean.

du nahi duela sentitzen duenak eman dezake dirua, berdin du kopuruak, guk dena behar dugu. Jendeak badu kontzientzia laguntzeko, baina batzuetan mesfidantza dago diru hori iritsiko ote den behar den lekura.

Beste proiekturik baduzue?

Zuhurtziaz jokatu behar dugu, azpijoko eta ustelkeria handia baitago han. Baliteke epe luzera eskolaren bat egitea, oraingoa egoera kaxkarrean baitago, baina lehentasuna jantokiak dauka.

HERRITARREN HITZA / Sebas Arantzabal · Langilea

Hileko azken barikuro

Uela urte batzuk hasi ginen elkartzen hileko azken barikutan, euskal presoek eskubideen alde egiteko.

Hasieran Elgetan nobedadea zena gaur egun ohitura bilhurtu da.

Batzutan gehiago bestetan gutxiago; bero ala hotz, euri edo elur, azken barikuro herriari gogoratzen diogu euskal presoak gogoan ditugula.

Izan ziren garaiak, beste batzuk ere etortzen zirela, elatuen alde igeri egiten dutenak. Baina itsasoa zakar

jartzerako berriro betikoak ginen. Presoen eskubideen alde egiteak egoera politikoen gainetik egon beharko luke.

Euskal presoek sakabanatze politika diseinatu zutenek, kolektiboren zatiketa bilatzen zuten. Urte mordo geroago garbi dago ez dutela helburu hori lortu.



"Presoen eskubideen alde egiteak egoera politikoen gainetik egon behar luke"

Baina denbora luze horretan, senideek jasan behar izan dituzte mendeku politik horren ondorioak: zenbat ordu bideetan? Zenbatek utzi du bizia semea ikustera zihoala, Karmelek bezala?

Badirudi orain konponbiderako haize berriak sumatzen direla. Gatazka konpon-

tzeko bidean presoek eta haien

senideen egoera humanizatzeko ezinbesteko pausoa izango litzateke presoak Euskal Herrira ekartzea; horrek lagunduko lukeelako gero beste pauso batzuk emateko.

Bide hau bultzatzeko bilduko gara berriro ere datorren abenduaren 31n arratsaldeko zortzietan.

Bertara hurbiltzeko elgetar denek gonbitea egin nahi nieke, euskal preso guztiak eta bereziki Paris aldean dagoen Ana Miren gogoan izateko; urruntasuna gaindituko duen gure elkartasuna bidaliz.

LABUR

Erretiratuen batzarra bihar Ozkarbi elkartean

Elgetako Erretiratuen elkarteak bazkideei dei egin nahi die urteko batzarrean parte har dezaten. Aurtengo bilera bihar, zapatua, izango da 17:00etan Ozkarbi elkartean. Batzarraren ostean luntxa izango da bertan. Erretiratuen elkarteak hainbat ekin-tza antolatzen ditu urtean zehar eta horiek aurrera ateratzeko dirulaguntza jasotzen dute Udaletik. Aurten bi dirulaguntza eman dizkio Udalak: lehenengoa 1.006,30 eurokoa eta bigarrena 928,90 eurokoa; guztira, 1.935,20 euro.

Abesbatza sortu nahi dutenendako bilera gaur

Elgetan abesbatza sortu nahi dute, eta horretarako bilera irekirako deia egin dute. Bola-toki tabernan izango da gaur, barikua, 20:30ean. Kanturako zaletasuna izan eta koruan abesteko gogoia duen 16 urte-tik gorako edozein elgetarrek izango du lekua bertan. Bilerara joan egin dutenek informazio gehiago nahi izanez gero Aitor Arantzetarengana edo Mikel Larrearengana jo dezakete.

Bi antzezlan asteburuan Espaloia aretoan

Asteburu honetarako bi antzezlan ekarriko dituzte Elgetara. Bihar, zapatua, Detritus Teatrusen *Las Punkys de verdad tambien llo-ran* lana ikusteko aukera egongo da 23:00etan. Domekan, berriz, umeen txanda izango da. Udalak antolatutako emanaldian 3 eta 6 urte bitarteko umeendako *Hitzak patriketan* antzezlan eskainiko dute Inaki Berastek eta Aitzpea Goenagak 18:00etan. Bi antzezlanak Espaloia aretoan egingo dituzte.

JAR EZAZU HEMEN ZURE PUBLIZITATEA

Goibekokale

Aperribay, s.l.

Marmoldegi eta granitoak

Pagatza indus. z/g. Tel. eta faxa: 943 78 90 21

20690 ELGETA



RECYDE, S.A.

Pagatza pol. ind. 20690 ELGETA, Gipuzkoa
Tel.: zentrala: 943 78 80 00. Faxa: 943 78 90 10
Posta elektronikoa: recyde@recyde.es

AENOR



Enpresa Erregistratua

ER-0182/2/95

ISO 9002
QS 9000
ISO/TS 16949

Urtia juan, urtia etorri Olentzero aurten be, baietz etorri?



HAUR HEZKUNTZAKO GABONETAKO JAIALDIA ABENDUAREN 22AN,
ARRATSALDEKO 15:15EAN ESKOLAKO ARETOAN.



ABENDUAREN 24AN, 11:00ETAN ESKOLAN ELKARTUKO GARA
HERRITIK ZE HAR GABON KANTAK ABESTEKO

ETORRI GUREKIN!



SAN MARTIN - IPINTZA - M. ALTUNA
BERGARAKO IKASTETXE PUBLIKOAK



San Martin Agirre
herri eskola

UGARTE

AROTEGIA - ALTZARIAK



- Arotz lanak orokorrean
- Altzariak
- Leihoak
- Ateak
- Horma armairuak



ALTZARI DENDA
Ikerleku zaharbidea • BERGARA
Tel.: 943 03 46 30

ERAKUSKETA ETA TAILERRA
San Juan, 1A • BERGARA
Tel.: 943 76 54 91/ Faxa: 943 76 08 04